

HERNANI

kronika

2003 urtea
Martxoak 27
Osteguna
Alea: 729
www.kronika.net

OLAZAGIRRE S.A. ZERRATEGIAREN INGURUKO AUZIA

ANTZERKI ZIKLOA

Udalak 6 hilabeteko epea jarri dio zerrategiari aktibitatea gelditu eta edifizioa kentzeko

■ 2002ko azaroaren 28ko epaiak dio Udalak 1996an zerrategia egiteko emandako baimena ez dela legezkoa ■ Auzo elkartea sententzia betetzeko eskatu dio Udalari, sei hilabeteko epea jarrita.

OLAZAGIRRE SA zerrategiaren auziak soka luzea ekarri du eta ekarri lezake. Udalak zerrategia Osiñagan egiteko baimena eman ondoren, Osiñagako Auzo Elkartearik epaitegietara jo zuen, esanaz terreno hura ez zela industriala eta han ezin zela aktibitate industrialik jarri. Epaitegiek Auzo Elkarteari eman zioten arrazoia: aktibitatea gelditu eta zerrategia kentzeko zioen sententziak.

Sei hilabeteko epea

Epaitegiek arrazoi eman dioete Auzo Elkarteari eta Auzo elkartea sententzia betetzea nahi du. Auzo Elkartetik Kronikari esan diotenez zerrategia kentzea nahi dute, baina, ez dute fabrika piktara bota nahi. Horregatik sei hilabeteko epea ematea era-baki dute aktibitatea gelditzeko, enpresak irtenbideren bat bilatzeko aukera izan dezan. Udalak, auzo elkartaren erabakia ontzat emanda, joan den ostiraleko Gobernu Batzordean erabaki zuen Olazagirre SAri sei hilabeteko epea ematea aktibitatea gelditzeko.

Gobernu Taldea: "Denokizan gara kaltetuak"

Udal Gobernu Taldeak Kronikari esan dioenez Olazagirre SAren eta auzotarrekin hitz egiten jarraitzen pronto daude, "auziari irtenbide ona bilatzeko". Gobernu Taldearen iritziz enpresa bera, Osiñagako auzotarrak eta hernaniar guztiek izan dira kaltetuak Udalak bere garaien zerrategia jartzeko eman-dako baimena dela-eta. Gobernu Taldeak dio aurreko



Olazagirre SA zerrategia Osiñaga Auzoan.

korporazioak irresponsabilitatez jokatu zuela zerrategiaren gaian "beste hainbat gai- etan bezala". Horrelako auziek "aurreko Udal agintarien talantea" agerian uzten dutela ere esan du Gobernu Taldeak. Manuel Fraile Hirigintza zinegotziak gaineratu du bere iritzi pertsonalean "horrelako auzietan ardura pertsonalak" egon beharko luketela. Hartutako neurrien inguru Gobernu Taldeak dio Olazagirre SA enpresak aurrera egitea nahi dutela eta horretan laguntzeko pronto daudela "horregatik erabaki dugu sententzia betetzeko enpresari denbora bat ematea".

EA-EAJ: "Auzia ez da inon aztertu"

EA-EAJko Udal Taldeak salatu du zerrategiko auzia ez dela inon aztertu eta Sozialista Abertzaleko Udal Taldeak Udaleko arautegia errespetatu gabe hartu duela erabakia. Oposizioko talde nagusiak dio Auzo Elkartea, zerrategiko nagusien eta Udalaren artean harremanak egon direla eta

irtenbidea hortik etorriko dela, baina, SAko Udal Gobernuak adostutako bideak ukatu egin dituela. EA-EAJk galdeten du zergatik ukatu duen Gobernu Taldeak epaiaren eta

hartu beharreko neurrien eztabaidea.

Olazagirre SAko ardu- radunek ez dute nahi gaiaren inguru iritzirik plazaratu, oraindik behintzat. □

AUZIA PAUSOZ PAUSO

- 1996an Hernaniko Udalak lizenzia eman zion Olazagirre SA enpresari Osiñagan zerrategia jartzeko.
- Osiñagako Auzo Elkartea errekursoa sartu zuen lizenziak emateko Udal akordioaren kontra.
- Zerrategia egin eta lanean hasi zen.
- 2000ko martxoaren 17an epaitegiek sententzia emanen dute zerrategia egiteko emandako lizenziak legez kontrakoak direla esanez.
- Udalak errekurritu egin zuen sententzia.
- 2002ko azaroaren 28an epaitegiek errekursoa atzera bota eta sententzia reafirmatzen dute. Sententziak zerrategia gelditzeko eskatzen du.
- 2003ko otsailaren 5ean, Osiñagako Auzo Elkartea sententzia betetzeko eskatu zion Udalari.
- 2003ko martxoaren 21eko Gobernu Batzordeak sententzia betetzeko erabakia hartu zuen.

'Ai ama' obra gaur

Hika antzerki talde hernaniarrak *'Ai ama'* obra antzeztuko du gaur, Antzerki Zikloaren barruan. *'Ai Ama'* antzerki obra hiru emakumeren arteko elkarrizketa da. Hiru emakumeak berdinak dira hitz egitean, baina, desberdinak barren-barrenean. Azkenerako elkarri egia haundiak aitortuko dizkiote, espero ez zituztenak, ez berak esaterik eta ez besteei entzuterik ere. 20:00etan Biterin.

Antzerki Zikloa bukatzen, bihar, *Punto Rabo* obra antzeztuko du Markeline taldeak. □

Udalak, Plenoa gaur

UDALAK hileroko Plenoa egingo du gaur arratsaldean eta Udal Taldeek 14 puntuko gaiordena dute mahai gainean. Hauek dira Udalbatzarrak tratatuko dituen puntuatko batzuk: 2003rako Euskera plana, Garapen Agentzia, zenbait talderi lokalak uztea, Ongintza eta Kirol Patronatuekin lotutako puntuak, eta EA-EAJk Gobernu Taldeari 2003ko Aurrekontuari buruz eskatutako argibidea. Plenoa, 19:00etan da. □

BILDU HERNANI

Elekziotako programa osatzeko bilera bihar

BILDU Hernani plataformak bilera irekia egingo du Udal Hauteskundeetako programa osatzeko. Aztertuko diren gaiak dira: euskera, hezkuntza, kultura, kirola, lurralteko antolaketa (hirigintza, ingurugiroa), ongizatea, sektore ekonomikoak (nekazaritza, merkataritza, enplegu)... eta abar. Bilera, ostiralean, 19:00etan da, AEK-ko lokaletan. □

ZINGI-ZANGA Jatetxea

Eguneko menuak
Asteburuan afaia
Florida 54
Tel: 943 33 03 97



LARRE-GAIN
Tolare-
Sagardotegia

Asteartetik igandera zabalik.
Ostiral eguerdian enkarguz.

Zatoz sagardo berria edatera!

Sagardo naturala urte osoan botilan salgai



943 55 29 38
OIALUME AUZOA

FRONTOIA

GAUR 16:00ETATIK AURRERA ERREMONTZE JAIALDIA:

1. partidua: **Zalakain - Gaztelu / Larrea - Lander**
2. partidua: **Ezkurra - Auzmendi / Altuna II - Lizaso**
3. partidua: **Agirresarobe - Eizagirre / Altuna I - Aizpuru**
4. partidua: **Bitoria - Urretabizkaia II / Sarasua - J.Etxeberria**

Ostegun, larunbata eta igandetan jaialdiak

Oihane Bakedanok salatutako torturak Nazio Batuen Erakundera iritsi dira

■ NBEk bi aldiz kargu hartu dio Espainiari eta inkomunikazioa galerazteko eskatu du.

NAZIO Batuen Erakundeak (ONUk) torturari buruz atera duen txostenaren berri eman du TATEk. Txosten horrek mundu guztian izandako tortura kasuak biltzen ditu eta 412 orriktik 55 Espainiri buruzkoak dira, "Turkia edo Txinari baino gehiago", nabarmendu zu-

en Iñigo Elkorok.

Oihane Bakedanoren tortura salaketa da, hain zuzen, Nazio Batuetako informeak jaso duen kasuak bat. Bakedano iazko urrian atxilotu zuen Loiolan Guardia Zibilak, ustez ETAREN kontrako operazioan. NBEk kargu hartu

dio Espainiako gobernuari operazio horretan (eta Iruñako beste batean) atxilotutako pertsonek jaso izan ote zuten tratuagatik.

Txosten horretan, inkomunikazioa galerazi egin behar litzatekeela esaten du NBEko informeak. □

Herriko ikastetxeek kultur jardunaldiak antolatu dituzte elkarrekin,biharko

■ Goizean zenbait ekitaldi egingo dira Institutuan, eta arratsaldean 'Ni Mohamed' antzerki obra izango da Sandiusterrin, 18:30etan.

HERNANI Institutua eta Bigarren Hezkuntzako zentroek kultur jardunaldiak antolatu dituzte elkarrekin, ostiraleko. Ekitaldiak egun osoan dira, batzuk Institutuan eta bestek Sandiusterrin.

Goizean, argazkigintza txapelketa, txalaparta, xakea, tri-biala, aerobic, graffitiak eta abar egingo dira Institutuan. Egundian, ikastetxeetako langileak elkartuko dira bazkarietan, eta arratsaldean antzerkia izango da Sandiusterrin. Donostiako Zurriola taldeak Ni Mohamed obra antzeztuko du, 18:30etan hasita.

Herriari irekia
Arratsaldeko antzerki ema-



Ikasle gazteak Biterin antzerkia ikusten.

naldia irekia da eta herriari gurasoak gonbidatu dituzte zabaldua dago. Ikastetxeek ekitaldira joateko. □

ESKOLA KIROLA

ASTEBURUKO EMAITZAK



| Futbola | Taldeak | Emaitza | Saskibaloia | Emaitza |
|----------------|------------------------|---------|-------------|--------------------|
| Neska lebinak | Langile-Elezto | 3-5 | Infantilak | Langile-A Bapeta A |
| Mutila lebinak | Elezto A - Langile B | 4-4 | | |
| Mutila lebinak | Elezto B - Langile C | 8-1 | | |
| Mutila lebinak | Umm ea B - Umm ea A | 2-8 | | |
| Mutila lebinak | Langile A - hm aculada | 6-3 | | |

Eskola kiroleko benjamin guztiek igeriketako probak izan zituzten larunbat goizean. Argazkian igerilari talde-txo bat eta monitorea daude, uretak ateratzen dira.

HITZ BITAN

✓ ASKATASUNA

Multei buruzko bilera gaur. Askatasuna erakundeak deitura bilera dago gaur arratsaldeko 19:30etan Biterin. Hernanin, multak dituzten 15 lagunen egoerari zein konponbide eman, nola lagundi, dirua nola lortu eta zein jarraipen egin hitz egingo da.

✓ BERRIAK ELKARTEA

Jokulandia bihar Plaza Berrian. Berriak elkartea umeentzako jokuak jarriko ditu bihar, ostirala, Plaza Berrian. Produktu birziklatuz egindako 30 joku baino gehiago, Ludoteka erraldoia eta tradiziozko jokuak egongo dira. Biher, arratsaldeko 17:00etan 20:00etara.

✓ IPUI KONTAKETA

Lur Korta gaur, Udal Liburutegian. Lur Korta ipui kontalaria liburutegian arituko da gaur ipui kontari. Kontalariak bi saio egingo diru: 17:30etan, 3-4 urteko umeentzat; eta 18:00etan, 5-7 urte bitartekoentzat.

✓ HERNANI INSTITUTUA

Guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa. Hezkuntza eta Kalitatea zikloaren barruan, Juana Mari Maganto EHuko irakasleak hitzaldia emango du gaur, guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa hobetu litekeenari buruz. Hitzaldia Hernani Institutua antolatu du eta Biterin kultur etxeak da, arratsaldeko 18:30etan.

✓ 3/4 PLATAFORMA

Kontzentrazioa gaur, Plaza Berrian. Hirulauden plataformak kontzentrazioa egingo du gaur Plaza Berrian, kartzela zigorraren hiru laurdenak bete dituzten hernaniarrak libre uztea eskatzen. Kontzentrazioa, 19:00etan da.

✓ HITZORDUAK

Firma bilketa gaur eta larunbatean. Hitzorduak kolektiboak firma bilketak egingo diru gaur arratsaldean eta larunbat eguerdian, pertsona, idea eta proiektu guztien askatasuna aldarrikatzen duen manifestuaren alde. Gaur arratsaldean ferian egingo da firma bilketa, eta larunbatean Plaza Berrian. Hitzorduak taldeak hernaniar guztia gonbidatu diru errebindikazio horiek babestera. Sinadura guztiekin Udaletxean mozio bat aurkezteko asmoa du. □

ZERBITZUAK

✉ TELEFONOAK

| | |
|-----------------------|------------|
| ■ Taxiak: | 943 550093 |
| ■ Udalzaingoa: | 943 333288 |
| ■ DYA: | 943 464622 |
| ■ Autobusak: | 943 556662 |
| ■ Anbulatorioa: | 943 006666 |
| ■ Jokalari anonimoak: | 943 331103 |

+ FARMAZIAK

| | |
|-----------|---------------------------------|
| ■ Egunez: | Bilbao-Sagastiberri Urbia 7 |
| ■ Tel: | 943 552941 |
| ■ Gauzez: | Atxa-Orbea Lasarte. Hipodromo 6 |
| ■ Tel: | 943 363549 |

IRAGARKI MERKEAK

Eguerditik aurrera haurrak zaintzeko neska bat eskaintzen da. Deitu: 635 20 51 73

Pisua daukat salgai Karabelen. Bi logela, sukaldea, sala eta komona diru. Interesatuek deitu: 943 55 34 84

Desbrozadore bat daukat saltzeko. Bigarren eskukoa HONDA UM 536. Interesatuek deitu: 943 55 54 36

Pisu konpartitu baten bila nabil. Koldo. Deitu: 943 55 49 64

Neska bat behar dugu umeak zaintzeko, 8:00etan 17:00etara. Deitu: 943 55 37 66 (Arratsaldeko 20:00etan aurrera)

LAGUNTZAILEA, agentea edo Justizi-ofiziala. Laster deialdiak. Euskal Herriko Auzeigietan lana. ADOZEK informatzen du: 943 44 45 09

AIREPORTUAN KONTROLATZAILEAK. AENAren deialdiak udaletan. Eskakizuna: Diplomatura edo licentziatura. Erdi mailako ingelera. ADOZEK informatzen du: 943 44 45 09

GIDA-ESKOLA IRAKASLEA. Langabeziarik gabeko lanbide baten lana. Diru-sarrera oparoak. Presta zaitez. ADOZEK informatzen du: 943 44 45 09

BASOZAINA. Euskal Herriko parke eta Natur Babesguneetan lan egiteko. Eskakizuna: Eskola Graduatura. Presta zaitez. ADOZEK informatzen du: 943 44 45 09

SUHILTZAILEAK. Euskal Herriko parkeetan egin ezazu lan. Lan-baldintza ezin hobek. Betebeharra: Eskola Graduatura. ADOZEK informatzen du: 943 44 45 09

GARRAIOLARIA. Garraiolarri profesional izateko gaitze-titulua lor ezazu ADOZEK informatzen du: 943 44 45 09

ADMINISTRARI laguntzaileak. Laster deialdiak zenbait udaletan. Eskakizuna: Eskola Graduatura. ADOZEK informatzen du: 943 44 45 09

UDALTZAINA bertako udaletan lan egiteko. Deialdiak laster. Eskakizuna: Eskola Graduatura. Presta zaitez ADOZ 943 44 45 09

LIBURUTEGI laguntzailea zenbait udaletan. Laster deialdiak. ADOZEK informatzen du: 943 44 45 09

ADMINISTRARIAK (teknikoak zein laguntzaileak). Bertako udaletan deialdiak zaba-lak. ADOZEK informatzen du: 943 44 45 09

GIDARIAK, elektrikariak, kontserjeak, langileak... Bertako udaletan subalerno bezala lan egiteko. ADOZEK informatzen du: 943 44 45 09